

IDAZTEAZ TXORATUTA

Marc Egea

Eusk: Ele txera

CAROL: Hezkuntza-sistemak du errua. Gaztetan -gazteagotan-, eskolan bihurrikeriaren bat egiten nuenean, andereñoek kopiatzeko agindua ematen zidaten -uste dut hau jada ez dela egiten, lehen egiten zen-, 50 aldiz kopiatu: "Ez ditut gaizki tratatuko eskolako arkatzak eta koadernoak". Gero 100 ziren. 200. Zigor horiek betez kaligrafiaren balioa aurkitu nuen, letrak behatzeko denbora asko duzu eta. Gero konposizioaren balioa aurkitzen joan nintzen, esaldiek ez baitute zutabe zuzen bat, badakizue?, kulunkatzen dira, eta horrekin jolasten hasi nintzen. Ariketa haiek maitatzen hasi nintzen -zigorrak, barkamena-. Artistatzat hartzen nuen neure burua. (Gogoratzuz disfrutatzen) 500 aldiz "Eskolako altzariak ez ditut gaizki tratatuko". 1.000 aldiz. "Ez ditut gaizki tratatuko eskolako kideak". 2.000 aldiz. "Ezta irakasleak". 5.000. Kopiatzen nuenean zoriontsu sentitzen hasi nintzen. Eta zigorra amaitzen zitzaidanean, zoro gisa korrika egiten nuen zerbait, norbait, dena delakoa izorratzera. Eta, bitartean, plazerra sentitzen hasi nintzen, espero nuena aurreratzen zutela sentitzen nuelako. Eta, horrela, min emateko ekintza beraz gozatzen hasi nintzen (*Hasperen egiten du*). Kopiatzeko agindu orde, nire andereñoek suspentsoekin zigortu izan balidate -adibidez-, gaur ez nintzateke hemen egongo. Nire andereñoek dute errua. Hori da dena. Nire abokatuak esan zidan azken alegatu hau ez nuela erabili behar txorakeriak esateko. Jada, ez da nire abokatua. Eta ez da ezer izan. Indarberrituko omen da. Medikuek. Diotenez. Mila esker.

Ele txera
Hondoluzak zabaldiaz



OHARRAK: **CAROL** hitz egiten hasten denean, ikusleak ez daki **CAROL** zoratuta dagoela, eta ez daki, halaber, epaimahai batek epaituko duela. Beraz, informazio gehiago ezean, ikusleak seriozki hartuko du berak esaten duena ("Hezkuntza-sistemak du errua"). Bere kontakizunaren lehen atalak ("50 aldiz kopiatu") ere kontuan hartuko ditu, oso arrazoizkoak baitira. Hala ere, pixkanaka, **CAROL**en diskurtsoa zentzuzkoa izateari uzten dio, eta gero eta arraroa, kezagarria bihurtzen da, irrazionaltasun puntu gorenera iritsi arte. Aktoreak ibilbide paraleloa egitea proposatzen dut, bere jardunean aplikatzen duen komikotasunari dagokionez. Hau da, proposatzen dut jarduera lasai, natural eta sinesgarri batekin has dadila, eta, pixkanaka, diskurtsoak okerrera egin ahala, haren komikotasuna handituz joan dadila, kontakizunarekin bat etorritik, bere abokatua eraso duela adierazten duen

IDAZTEAZ TXORATUTA

Marc Egea

Eusk: Ele txera

*klimax horretara iritsi arte. Horren ondoren, komikotasun-maila bat-batean jaitea proposatzen dut, eta hasierako seriotasunera itzultzea, "Diotenez", "Mila esker" lasai, natural eta sinesgarri batekin, **CAROL**en erretratua osatzeko: pertsona guztiz desorekatu baten antzera.*

Ele txera
Mundurak zabaltzuz

